

MIRARIA VENEZIAN

Bazen behin, Italian, Venezian konkretuki, hamar urteko Alessandro izeneko gaztetxo bat. Alessandro jatorra, gogotsua eta langilea zen, eta beti zegoen besteak laguntzeko prest. Ile kizkurra zuen, ez zen oso altua, marroi koloreko begiak zituen, eta beti zeraman bere gustuko kamiseta jantzita, txikitan, bere aitonak hil baino lehenago oparitu zion Napoli futbol taldeko kamiseta bat.

Alessandrok faltan botatzen zuen bere aitona, beti pasatzen baitzituen udako oporrak berearekin, Florentzian. Handik aurrera, bere amona zaintzen pasatzen zituen opor denak, aitona hil zenean Veneziaara etorri baitzen beraien familiarekin batera bizitzera. Denbora gutxira, gaixotu egin zen, eta handik aurrera Alessandro amona zaintzen gelditu behar zen, izan ere, bere aita Guillermok eta ama Aurorak lanean pasatzen zuten uda guztia.

Guillermo arrantzalea zen, eta beste bi pertsonarekin egiten zuen lan. Bietako bat Alessandroren lagunik onenaren aita zen, baina antza denez, gurasoek ez zuten oso harreman honik elkarren artean. Aurora sukaldaria zen familiaren etxearen beko pisuan zegoen janari Italiarraren jatetxe batean.

Alessandro uda bukatzeko desiatzen egoten zen oporretan zehar, bere lagun Pellegrino berriz ikusi ahal izateko. Eskolara itzultzeko hordua heldu zenean, Alessandro oso urduri zegoen, eskolan bere lagun min Pellegrinorekin izango zen jakiteko, baina aldi berean triste zegoen, gau artan bere aitonaren istripuari buruzko amets txar bat izan zuelako. Gelara itzultzerakoan Pellegrino ikusi zuen, eta asko poztu zen. Alessandro eta Pellegrino Alessandrok gauean eduki zuen ametsari buruz hitz egiten egon ziren, eta esan zion bere aitonak honela esan ziola: “Amona galtzea nahi ez baduzu, joan ospitalera bihar gaueko bederatziretan. Ez minutu bat lehenago ez minutu bat beranduago. Bederatziretan han egon beharko zarete, edo agian, ez duzu inoiz gehiago ikusiko hainbeste maite duzun zure amona.” Pellegrino hori entzuterakoan harrituta gelditu zen.

Etxera heldutakoan, Alessandro pentsakor zegoen. Bazkaltzen zeuden, eta Alessandroren gurasoak lanean ari ziren. Alessandro, gauean bera eta bere amona ospitalera nola joan behar ziren pentsatzen zegoen. Ideia bat bururatu zitzaion: bere amona beti egongelan egoten zenez, bera egongela ondoko komunera joango zela esango zuen eta ondoren isilean atea zabaldu eta ospitalera joango ziren. Hordulari bat ere eramango zuen, horrela bederatzirak zirenean ospitalera joango ziren.

Gaua iritsi zen, eta bere ideia ondo irten zen. Bi minutu falta ziren bederatzirak puntuan izateko, eta ospitale kanpoan itxaroten zeuden. Alessandrok ez zekien zertarako egon behar ziren han. Bat-batean, amona zorabiatu eta lurrera erori zen.

Alessandrok amona ospitalera eraman behar zuen, baina oraindik hiru minutu falta ziren bederatzirak izateko. Alessandrok bederatzirak izateraino itxaron behar izan zuen eta azkenean ospitalera sartu zen amona eskuetan hartuta zuelarik. Korrika batean sartu zen, oihuka, ez zekien zertan zegoen, baina behintzat horrela erizain bat etortzea lortu zuen, eta erizaina eta bere amona gela batean sartu ziren ahal zuten azkarren. Alessandro kanpoan zegoen, itxaroten, dardarka, nola beste zortzi erizain gelan sartzen ziren ikusten.

Itxaroten zegoen, eta itxaroten, eta itxaroten, baina ezin zuen gehiago eta gurasoei dena azaltzea pentsatu zuen. Gurasoak, entzuterakoan oso urduri jarri ziren, amona ospitalean zegoelako, bera bakarrik. Kanpoan itxaroten egon ziren, eta azkenean erizain bat hurbildu zitzaien. Amona ondo zegoela esan zien, eta asko poztu ziren. Denak batera etxera joan ziren, eta amak afari desberdina prestatu zuen, espagetiak karbonara erara. Oso pozik zeuden.

Hurrengo egunean, gelara sartu, eta denak Alessandro zoriontzen hasi ziren. Inorako ere ez zuen espero, eta irakaslea etorri eta esertzerakoan Pellegrinok aldizkaria erakutsi zion. Bere albiste bat agertzen aldizkariaren azalean eta honela esaten zuen: “Alessandro gaztetxea, bere amonaren salbatzailea!”. Berak ez zuen horrela pentsatzen, honela baizik: “Eskerrik asko aitona, zu baitzara benetako salbatzailea!”. Aitona zerutik dena ikusten zegoen, eta bere bilobaz oso harro zegoen, izan ere berriz elkarrekin egondako opor batzuk bezala izan ziren berarentzat.

*HALA BAZAN ETA EZ BAZAN,
SAR DADILA KALABAZAN,
ETA ATERA DADILA,
VENEZIAKO OSPITALEAN*